1



# BUITZI'REN ERIOTZA

OÑA'N 8-XI-53

# BULTZI'REN ERIOTZA

(1)

Gauza negargari bat
avestera noa:
Zelan bein tragau yakun
BULTZI, gure astoa.
Begira, ezpada, Jaunak
negar eitekoa.
Bultzez yantzi ez aren
lutuz dot gogoa.



Elisa

(2)



Ea Bego

Asto politenazan
politik ba'dago:
ankariña, erbia
baño zoliago.
¡Begirune bat bevkan
maite-samurago!
Iñoz ezkara aiztuko
ELISA ta BEGO.

(3)

Apal- beargiña zan
ta batez be esangiñ. (obediente)
¡So!¡Bultzi! deitu ezkero
egon aŕen uŕiñ
aŕantzaka etoŕen
buru- buztana astiñ.
Berbetan izan ezik
guztia bazekiñ.



(4)

Gorbeie'tik berantez
Arkiveŕ gañean
ankea sartu eban
aŕi bitaŕtean ;
ara taona, indarka
atera gurean
ankazuŕa austu eban
zori-txaŕenean.

(5)

Laguntz-eske asi zan
estukure aŕtan;
begi andi biekaz
begiratzen eustan.
¡Bego! ¡Aŕen Lagundu!
tamalez iñostan.
Zoritxaŕak biotza
erdibitu eustan.




(6)

Asi nintzan gedaŕez
¡¡Ene Elisabete!!
¡Astoa il bear yaku
ta arin eldu zaite!
Ainbeste negar egin
gendun bion arte:
¡Gure Bultzi polita!
¡¡Ene astotxo maite!!

(7)

Astoak ikusirik
eriotzea uŕ,
begiak zabal-zabal
tamalez ta samuŕ:
"Iltzen noa", iñoskun
bekokia tximuŕ
"Etzaidazue aiztu,
¡¡¡Betirarte, aguŕ!!!




(8)

Etzaitut ez aiztuko
astotxo kutuna;
Negaŕez emoten dot
zugaitik eguna.
Ilatian yaŕiko't
auxe idazkuna: (letrero)
Emen il yakun Bultzi,
asto politena.